



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-02-29**

VIURTEA 1.374.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IZEBA PILARREN ILOBAK MUSIKA TALDEA

«Lau urte hauetako kanta guztiak joko ditugu azken kontzertuan»

ANOETA Musika taldeak azken kontzertua emango du bihar, 23:00etatik aurrera, Anoetako Gaztetxean

BEREZIA Taldearekin jo izan dutenek parte hartuko dute; argazki eta bideo emanaldia eta afaria ere izango dira



A. IMAZ



Atzo egin zuten Tolosan Independentzia Egunaren aurkezpena. N. URBIZU

Etzi V. Aiztondo Klasikoa izango da

TOLOSALDEA Afizionatuen mailako lasterketan 28 taldek hartuko dute parte, 5. edizioan 4

Maiatzera arte kultur eskaintza oparoa antolatu du Galtzaundik

TOLOSALDEA Eskualdeko herri gehienetan 2

Independentzia Eguna antolatu dute eskualdeko hainbat herritan etzirako

TOLOSALDEA Villabonan, Ikaztegietan eta Lizartzan egingo dute; Tolosan, martxoaren 7an 5

txokoa **h**

2 sarrera pare

zozketan
deitu eta eskuratu

Martxoak 3 ° astelehena
16:30ean
Tolosako
Beotibar pilotalekuan



aspepelota.com

**Berasaluze IX - Apeztegia
Cabrerizo - Arruti**

|| || || || || || || ||
**CAPELLAN - PASCUAL
XALA - NALDA III**

|| || || || || || || ||
**Retegi II - Argote
Uriarte - Galarza VI**

Kultur txaloak



» Kale-kantoitik

Joxemi Saizar

Kultur txalo batzuk dakartzat zutabe honetara. Lehendabizikoak Asvinenea arte eszenikoen sustapen laborategiari, aurreko astebururako antolatu zuten ahoz-kotasun jaialdi apartagatik. Ondoren zine festaren ekimena berriro antolatu duten horiei, oso prezio onean zinema ona dastatzeko aukera emateagatik. Eta azkenik Anoetako ondarea (baserriak, Basagain) bihar bisitatzeko ideia izan duenari. Bere ondarea zaindu eta ezagutzera ematen duen herria aurrera aterako da. Bai horixe. Ea beste herri askok eredu jarraitzen duten.

Datorren astean 100 urte beteko ditu eskial gure inguruan. Orduan ere tolosarrak izan omen ziren aitzindari, hona lanera etorritako norvegiarren eskutik. Bada ospatzeakoa! Hauteskunde kanpainan irristada freskoa ekarriko digute eskialtzailak garai haiek eta eskia- ren historia gogoratzeak.

Kanpainan al gaude bada? Ez du ematen. Raxoi ez da oraindik Lizartzara etorri eta! Eta honekin ez ditut ideiak eman nahi. *Egunkaria kasu*-ko epaileei ideiak ematen ari dena beste bat da. Hori ere kanpainan ari dela dirudi. Halako lagun-tzailaekin, lagun batek esaten duena etortzen zait burura: "Ez lagundu, mesedez. Bake-bakean lan egiten uztearekin konformatzen naiz".

Ez dut asko jarraitu kanpaina, baina perla bat entzun dut aste honetan. Lankide ohijeltzale batek une zailetan «que cada palo aguan-te su vela» esaten zigan, itsasontzi borroketako kapitainen antzera. Bere alderdiko Bizkaiko zerrenda-burua itzultzaile aparta atera zaio: "Bakoitzak bere kandela aguenta dezala" esan zuen asteartean Euskadi Irratian. Nora joango da kandela hartuta: Madrilerara? Aste Santuko paso batera? Rocioko ama birjinarengana?

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurra.** Yorkshire (toy) arrazako bi txakur saltzen dira. Pedigriarekin. Arra: 900 gramo. Emea: kilo bat eta 250 gramo. Interesa dutenek deitu ondorengo telefono zenbakira: 618 95 32 12.

Maiatzera arte ekitaldi ugari Galtzaundiren eskutik

Kultura » Ipuin kontalariak, poesia errezitaldia, film laburrak, magoak, pailazoak eta komikiak izango dira, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak maiatzera bitarte antolatu dituen kultur ekitaldien egitaraua aurkeztu du. Hala, ikuskizun ugari gozatzeko aukera izango dute eskualdeko gazte eta gaztetxoek hainbat herritan.

Abaltzisketa

■ **Apirilak 17.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da liburutegian, 17:00etan.

Albirtur

■ **Apirilak 24.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da liburutegian, 18:00etan.

■ **Maiatzak 16.** Kiki eta Koko pailazoek ikuskizuna, eskolan, 17:00etan.

Alegia

■ **Maiatzak 15.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da liburutegian, 17:00etan.



Idoia Sanchez. HITZA

Alkiza

■ **Apirilak 3.** Txaborro magoak eskainitako ikuskizuna izango da ikusgai, Kultur Etxean, 17:00etan hasita.

■ **Martxoak 6.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da liburutegian, 16:30ean.

Amezqueta

■ **Apirilak 17.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da liburutegian, 18:30ean.

Anoeta

■ **Martxoak 6.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, haur liburutegian, 18:00etan.

Bidegoian

■ **Apirilak 24.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, haur liburutegian, 16:30ean.

Hemialde

■ **Martxoak 14.** Txobxongiloak erasoan! ikuskizuna, 17:30ean, herri eskolan.

Ibarra

■ **Apirilak 11.** Euskarazko film laburren zirkuitua, Gaztetxean, 20:00etan.

Lizartza

■ **Martxoak 13.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, eskolan, 09:30ean eta 10:30ean.

Orendain

■ **Maiatzak 15.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria, liburutegian, 18:15ean.

Tolosa

■ **Martxoaren 30etik apirilaren 6ra.** Euskarazko komikien erakusketa, Kultur Etxean. Komikilaria: Joseba Antxustegietxarte.

■ **Apirilak 18.** Poesia errezitaldia izango da Leidor aretoan, 18:00etan. Tolosako eta Iparraldeko DBH eta batxilergoko gazte- en eskutik.

S Soka motzean

«Parrandan bertsotan ibiltzen naiz 'Atxu' lagunarekin»

RAMONTXO GARMENDIA

Ibarrako kiroldegiko langilea

ASIER IMAZ

Ibarrako kiroldegian egiten du lan Ramontxo Garmendiak (1976, Ibarra), baina afizio ugari artistak da.

Goizean esnatzen zarenean zure lehen pentsamendua?

Kristoren pena ematen dit altxatzeak baina erdaraz esaten den bezala, «Al que madruga Dios le ayuda», jaunikorik baldin bada.

Irakurri duzun azken liburua?

Azkenekoa? Utzi pentsatzen. Aspaldi izan zen. Orain dela 20 bat urte *Esaera zaharrak eta txiste berriak*.

Ikusi duzun azken pelikula?

Ikusi bai baina ez naiz izenaz gogoratzen.

Nola ikusten duzu munduko ekonomia?

Orekarik gabe. Merezki ez dutenak gero eta aberatsago eta langile humilak gero eta behartsuago.

Zein da zure bizipoza?

Kirola orokorrean, gastu handirik ez duten gauzak.

Bertsotan ere ibiltzen zara?

Bai, bai. Nahiko ona naizela esaten dute gainera.

Parrandan ere bai?

Bai. Parrandan ez dakit ze arrazoigatik baina inspirazioa etorri egiten da eta hor aritzen gara, *Atxu* lagun dudala, orokorrean niri ezin segi ibiltzen da baina.

Zure betiko bertsoa ere ba omen daukazu.

Tokatzen den leku bakoitzari bertsoa egokitu egiten diot: *Ona etorri gera/Hernani aldera/gutxitan izaten da/holako aukera/gaur izan dugu eta/gu etorri gera/ederki pasa ta gero/joango gera etxera*.



ASIER IMAZ

L Laburrak

Adinari buruzko gogoetak Samaniego ikastetxean

TOLOSA ● Datorren Martxoaren 4ean eta Elkarbizitza Planaren barruan, Samaniego ikastetxean famillientzat hitzaldia izango da. Hizlaria M^ñ Jesus Uranga, familia terapeuta izango da. Saioa 16:30ean hasiko da eta Haur Hezkuntzako balio anitzeko gelan izango da. Jorratuko den gaia ondorengo da: Adinari buruzko gogoetak eta nola lagundu garapenean. 2. eta 3. zikloko ikasleak.

Bertso-afaria, Hirukideren eskutik, Gure Txokoan

TOLOSA ● Hirukide ikastetxeak bertso-afaria antolatu du gaurko. Tolosako Gure Txokoa elkartearen izango da, 21:00etan, eta bereziki Hirukideko langile eta gurasoei zuzendurikoa da. Aitor Mendiluze, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazlea, Bixente Gorostidi eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira bertsotan.

Berdinen arteko tratu txarraz hitzaldia Orixen

TOLOSA ● Hurrengo astelehenean, martxoak 3, 18:30ean hitzaldi bat eskainiko dute Orixen Institutuan. *Berdinen arteko tratu txarra eta in-darkeriaren prebentzioa* izango da bertan jorratuko duten gai. Gaztelaz izango da, eta DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzenduta dago. Hizlaria Hilario Garrudo psikologoa izango da.

Kirol jarduera anitza izango da gaur, bihar eta etzi, Berazubín eta Usabalen

ERREDAKZIOA

Berazubín, bihar, 16:30ean Gazte- en ohorezko mailan, Tolosa CF eta Numanciaren arteko futbol partida izango da.

Usabalen, berriz, gaur, kantxa nagusian, 20:30ean, areto futbol-ean, Laskorain eta Eskolapioko nes- kak neurtuko dira. Bihar, kantxa nagusian, 10:30ean, infantil maila- ko saskibalo partidak jokatu-ko dituzte TAKEko neskek eta mutil-ek, eta 12:00etan kadeteen txanda izango da. Beheko kantxan, mahai tenis partidak izango dira, 15:00etatik 20:00etara. Futbol zelaian, 11:30ean infantilen arteko partidak izango da, 15:30ean, lurralde-koak mailakoa eta 17:30ean, berriz, juvenilen. Etzi, kantxa nagusian eskubalo partidak izango dira 10:30ean, eta 12:00etan. Futbol zelaian, juvenilek jokatu-ko dute 10:00etan, eta neskek, 12:00etan.

Hilabeteko azken ostiralean elkarretaratzeak izango dira

Politika » Besteak beste, Haimar Altunaren aita, Eneko Galarraga, Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi gogoratuko dituzte gaur.

ESTI ZEIZA

Ohikoa denez, gaur, hilabeteko azken ostirala izanda, Etxeretek deituta elkarretaratzeak egingo dituzte hainbat herritan. Euskal errepresaliatuen senitartekoei «azken asteetan euskal preso ugari espetxez aldatu izana» salatu dute.

Etxeretek agertutakoaren araberak, «kartzela aldeketa hauek batik batik Espainian gauzatu dira». Norako aldeketa horien harira, honakoa nabarmendu dute, «ez dutela euskal preso bakar bat ere Euskal Herriratu. Aldiz, bi preso Euskal Herrian kokatutako kartzelatik atera eta urrundu egin dituzte». Honez gain, nabarmendu



Hilabetero bezala, ohiko tokietan egingo dituzte elkarretaratzeak. A. IMAZ

dute, Frantziak «beste euskal preso bat bakartu egin duela, Jose Domingo Aizpurua hain zuzen ere». Usurbildarra beste euskal presorik ez dagoen Perpignaneko kartzelara eraman dute.

Azken asteetako gertaerak gogoan

Gaur iluntzean gauzatu dituzten elkarretaratzeetan, azken asteetan jazotako hainbat gertaera gogoratuko dituzte. Horien artean,

» AZKEN OSTIRALA

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketak.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00.
- **Ibarra.** 19:15ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 19:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** Gaur, 20:00etan.

«Haimar Altuna Lizartzako presoaren aitaren heriotza». Bestetik, hitz batzuk esango dituzte Eneko Galarraga billabonatarren egoeraren inguruan. Izan ere, datorren asteartean jakingo du ea «Frantziako justiziak bere aurkako euroagindua onartu duen hala ez, eta espainiaratua izango den».

Azkenik, mintzagai izango dira Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi preso ibartarrak. Bi hauek, sei urte inguru Espainiako kartzelatan egin ondoren, martxoaren 22an aske geratuko direla aurreikusten da.

L Laburrak

Aramendi eta Ijurkoren ongi-etorria prestatzen

IBARRA ■ Ekaitz Aramendi eta Eider Ijurko euskal preso ongi-etorria antolatzeko, astelehenean egingo dute bilera. Batzarra Ibarra Kultur Etxean izango da, 19:00etan. Ongi-etorria martxoaren 22an egingo diete.

EAEK asteleheneko Osoko Bilkurara joateko deitu du

IBARRA ■ Udalbatza osoaren ezohiko bilkura egingo dute datorren astelehenean, Ibarra udalbatzean. Batzarra 18:00etan izango da. Ibarra EAE-ANV jakinarazi duenez, «ilegalizazioaren mozioa bozkatu da, ondorioz herritarrei bertara ager daitezen eskatzen diegu».

Bertako ikasleen plastika lanak ikusgai liburutegian

IKAZTEGIETA ■ Datorren asteartetik ostiralera bitartean, Ikaztegieta herriko liburutegian, bertako eskolako ikasleen plastika lanak erakutsiko dira ikusgai. Arte ederretako ikasle batekin egindako eskulanak dira eta arratsaldeetan 16:00etatik 18:30ak bitarte izango dira.

G Gutunak

EA eta greba orokorra

Azkenean entzun dugu Tolosako Eusko Alkartasunaren ahotsa, zuzendaritzazena behintzat, azkenaldian Euskal Herrian eman diren gertakari lagazgarrien inguruan. EAren politikoa profesionalak aurkitu dute tartetxo bat agendan euren iritzia plazaratzeko. Baina zertarako?

Gobernukide duten EA Jk Loiolako elkarriketetan izandako jarrierak gure herriaren askatasunari eta bakeari atek ixki dizkiola deitoratzeko? Azkenaldian euskal herritarrek Guardia Zibilaren esku jasandako torturak salatuko? 18/98 auziko epaia justiziaren eta giza eskubideen aurkakoa dela esateko? ANV eta EHAK alderdi abertzaleek jasan duten eraso antidemokratikoaren aurrean elkartasuna eskaintzeko? Lan politikoa publiko egiten saiatzeagatik euskal herritarrek atxilotu eta kartzelatzea herri honi independentziarako bideaitxe dela adierazteko? Ez noski!

Zertarako orduan? Gertakari horiek salatzen antolatutako greba egunean herri honen gehiengoak emandako erantzun eredu garrira zikintzeko, mobilizazioetan parte hartu zuten milaka herritarrek iraintzeko, Espainiako eskuin muturrak darabilen diskurtso berberari sutsuki heltzeko. Izan ere, diskurtso propiorik ezearan herri honen etsaien aukeratu du EAK!

Hala ere, ez gaitu harritu EAren

azken adierazpenak. Joseba Azkarraga sailburuak greba boikoteatzeko egindako lanaren jarraipen bezala ulertzen dugu. Edota udaldekotean egoera aztertzeke egin zen ez-ohiko bilkuran erakutsitako utzikeria politikoa latsagarriaren jarraipena: ez zuten hitz bakar bat esan Pleno osoan! Eta orain hau!

Zertarako aipatu, greba eskubidea urratuaz, hainbat eta hainbat langilek jasan behar izan zituzten mehatxuak. Edo lantoki, komertzio eta ikastetxe gehienetan grebaren aurreko egunetan hartu zela grebarekin bat egiteko erabakia, askatasunez. Edota greba egun osoan zehar ez zela liskar bakar bat ere izan Tolosan. Zertarako?

Aztoratuta dabilta. Aztoratuak dabilta euren usteko boto emaile asko greba eguneko mobilizazioetan ikusi zutelako. Behatzarekin seinaltatzen duen «txibatoaren» papera betetzeraino aztoratuak. Zertara dator greba deialdia Anoetako gertakariarekin lotzea? Zuek bakarrik egin duzue hori. Izan ditzakeen ondorioetan pentsatu duzue?

Ez gaitu harritu, baina onartu behar dugu, abertzale bezala mingarria egin zaigula. Nork eraso behar gintuen, nork esan behar zuten PPK ere esan ez dituenak? Zumaian eta Azepeitian, adibidez, Ezker Abertzalea eta EA elkarrekin daude Udal Gobernuan eta elkarlan oparoa garatzen ari dira, ildo abertzalean beti ere. Zergatik ez da posible elkarlan hori Tolo-

san? Zein da ezberdina? Tolosako Ezker Abertzalea? Edo Tolosako Eusko Alkartasuna?

Eta gu erasotzeko gainera, «Tolosako Junta» izenaren azpian ezkatzen dira. Nor dago klandestinitatean? Guk, agerraldi publikoan, gure argakia barne, eskerrak eman genizkion Tolosako herriari, Estatu espainolaren erasoari emandako erantzunagatik. Eta idatzi honen bidez orduan esandakoa berresten dugu: Mila esker, Tolosako herritarrik! Mila esker, adierazitako elkartasunagatik!

Eako politikoa profesionalak aspaldi alden ziren euren oinarri sozial abertzaleetik. Soldata baten truke saldu diote borondate politikoa PNVri. Horrela eraman dute Eusko Alkartasuna egungo egoera tamalgarrira. Azken Udal hauteskundeetan bozka «nuloak» EAren bikoiztu zituen. Gu al gaude bakarrik? Jende «boteretsu» asko ezagutuko duzue bulegoetan...guk nahiago dugu gure herriaren konpainia.

Eta, hain zuzen, herri horri, baita EAren eta EA Jren oinarri sozial abertzale osoari ere, egiten diogu dei martxoaren 9ko hauteskundeetan Espainiari mezu argi bat bidaltzeko. Euskal Herriak bizi duen zapalkuntza estrukturala eta salbespen egoerari Aski da! esateko garaia da. Gure herrira askatasuna eta bakea ekarriko dituen marko demokratikoa aldarrikatzeko ordua da. Orain 30 urte herri honi egin zitzaion iruzurra errepikatze-

ko aukerari atek ixteko momentua da. Euskal Herriaren bizirau-pena eta garapena, eta euskal herritarren eskubideak bermatzeko gai den proiektu politikoa bakarrari, Independentziari, atek irekitzeko unea da. Eta bide bakarra dugu horretarako: Abstentzioa!

Izan ere, autokritika eskatzen diozue Ezker Abertzaleari. Baina noizko zuen autokritika? Zuen ustetaz «lotsagarria da egunkariak ixten, demokrazia usteltzen eta badaezpadako espetxeratzeak eta torturak bultzatzen dituen Espainiar estatuaren jarrera». Baina, zer egin behar duzue zuek hori guztia ekiditeko? Hauxe da orain 30 urte babestu zenuten marko politikoa onorioa. Iruzur berri bat babesteko prest al zaudete? Noiz arte jarraitu behar duzue Euskal Herria ukatu eta mespretxatzen duen estatu horren morroi zintzoak izaten?

Hala ere, bukatzeko, ez genuke abertzaleon artean gaindiezinezko hesirik altxatu nahi. Konbentzitu gaude elkarlana beharrezkoa dela gure herrira askatasuna eraman nahi badugu. Bide horretan gure eskuak zabalik daude. Hateskundeak pasako dira eta izango dira elkarlanerako aukerak. Aberri Eguna bateratua ospatzeko proposamena mahai gainean daukagu. Bertan abertzale guztiok elkar ikusiko dugun esperantza zintzoa dugu. Hala izan bedi!

Iñaki Elduairen (Ezker abertzalea), Tolosa.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduaín.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruera. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispensa: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leiztaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalteiaingoa: 943 675858

Tolgari: 943 650016

Iurrarmendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

«Ariketa bereziek joko polita eman eta lehia arintzen dute»

UNAI MUÑOA » Bertsolaria

Kultura » Berrobin jaiotako bertsolaria Beterriko Bertsolari Txapelketaren finalean izango da, bihar, Asteasun.

IMANOL GARCIA

Unai Muñoa (Berrobi, 1982) sei urte zituela joan zen bizitzera Lasartera. Bihar Beterriko Bertsolari Txapelketako finalean izango da. **Zer moduz joan zen finalerdia?**

Oso ondo, baina ez saioa bakarrik, aurretik ere. Txapelketa honen planteamendua berezia zen. Ez dut uste taldeka abestu dudarik txapelketa batean inoiz. Sortzen zuen ilusio berezi bat, agurra prestatu behar hori eta, nik uste oso ondo joan dela.

Uneoro aipatzen da txapelketaren berezitasuna.

Aldeazurreko urduritasuna puntu bat banuen, gure agurrak eskatzen zuen antzerki puntu bat eta ez gara horretan batere abilak, baina bazuen bere morbo puntu bat ere. Behin saioan geundela, agurrarekin konturatu nintzen sekulako falta egiten zuela, txapelketa batek beti du seriotasun eta lehia puntu hori, eta nahiz eta afari baten jiran izan, nabaritu izan da. Agur hain ridikuloa egin beharrak, lehiari zentzu osoa hasieratik kendu egiten



HITZA

dio eta taldeka izanik, uzten du tartea nahi hainbeste ariketa bihurri egiteko, gozatzeko, seriotasun hori kentzeko, eta txapelketaren kontzeptu bera da gutxien nabaritzen duzuna. Hortan oso positiboa izan da.

Nolakoa izan zen zuen agurra?

Ijito familia izan gintezelako pentsatu genuen. Hortik tiraka hasi ginen pentsatzen zenbait ijito ibiltzen direla musika jotzen eta ahuntzarekin eskean. Ikerrek jotzen zuen akordeoi txiki bat eta ahuntza nahi genuen koloretakoa ekartzeko aukera genuela eta animatu egin ginen. Sartu ginenean kalejiran, *Margarita* 100 kiloko ahuntzarekin eta mikrofono inalanbriko batekin, lehen erreakzioa indartsua izan zen.

Eta beste ariketak zer moduz?

Nire uztea da nik ez nituela eduki hain bereziak ziren ariketak. Bazeuden ariketa batzuk ezpainak irakurtzearena edo, beste batzuei tokatu zitzaizena, nik uste joko polita ematen dutela, ondo pasatzeko direla eta txapelketa honi behintzat arindu diotela sekulako karga eta eman diote umorea eta hori da jendeak nahi duena.

Bertsolariek gozatu zutenen, beraz.

Bai, guk gozatu genuen zentzu guztietan. Bertsolarien aldetik talde denak oso ezagunak gara, oso lagunak gara, askotan egoten gara elkarrekin. Gure artean aritu gara «hartuko dituzue latzak» esanez, lehia sano batean, eta hori han nabaritzen zen izugarri.

Finalerako zer espero duzue? Agurra prestatzen ari zarete?

Ari gara. Aste honetan bi aldiz gelditu behar gara. Larunbat honetan ere saiatuko gara agurrarekin xelebrekeriaren bat egiten, eta gero, ondo pasatzera. Aurrekoa bezala joaten bada, primeran.

Sentitu zutenen publikoa ere disfrutatzen ari zela?

Entzulegoarentzat ere zerbait arina izan zen, umoretsua. Esker oneko zegoen gainera eta asmatzen zenuenean txaloak majo entzuten ziren. Jendea ikusten zenuen giroan zegoela.

Ttottondegia eta Zilarriturri, nor baino nor

Asteasu » Beterriko I. Bertsolari Txapelketa jokatu dute bi taldeek, bihar, Iturriondo jatetxean.

ERREDAKZIOA

Larramendi Bazkunak antolatutako Beterriko I Bertsolari Txapelketaren finala jokatu dute bihar, Asteasun, 20:30ean, Iturriondo jatetxean egingo den afariaren ostean. Amasan jokatuak kanporaketa Ttottondegia taldeak irabazi zuen eta, beraz, finalean Zilarriturriekin neurtuko ditu indarrak.

Amasako Iturriogoxo Kultur Etxean jokatu zen bigarren kanporaketa hori, aurreko ostiralean. Bertan Otsabi taldea (Jokin Uranga, Jon Martin eta Iker Goñi) eta Ttottondegia taldea (Nahikari Gabilondo, Iker Zubeldia eta Unai

Muñoa) lehiatu ziren. Boto guztiak, bai bi epailean, bai entzulegoarena, Ttottondegirentzat izan ziren. Lehenengo kanporaketan sailkatu zen Zilarriturri taldea Ainhoa Agirreazaldegik, Iñaki Apalategik eta Iñigo Izagirik osatzen dute.

Asteasuko saioan bi talde finalistak 100 laguntzat antolatu den bertso-afari baten ostean neurtuko dituzte bere bertsoak. «Aurreko asteetako kanporaketetan entzun ahal izan ditugun bertsoen maila aintzat hartuta, oso lehia bizia espero da Asteasuko finalean», antolatzaileek esan dutenez. «Izan ere aurreko bi saioetan lepo egon dira aretoak». Finalean Amaia Agirrek jardungo du gai-jartzaile gisa, eta entzulegoarekin batera beste bi epaile izango dira, Zigor Leunda eta Urtzi Basterrika. Oraindik ere bada txartelen bat edo beste salgai afaritarako.



Ttottondegia taldeak Amasan egindako agurraren une bat. HITZA

Laburak

Eskualdeko pultsulariak Espainiako Txapelketara

VILLABONA-ZIZURKIL » Hilaren 23an Halterofiliako Euskadiko Eskola-Teknika Txapelketa jokatu zen Gasteizen eta bertan Danena-Olaederra taldeko pultsulariek parte hartu zuten. 1995 urtean jaiotakoan mailan, Unai Calvok (Jesusen Bihotza Ikastola) laugarren postua lortu zuen. 1994 urtean jaiotakoan artean Asier Gallekok (San Millan Herri Eskola) lehen postua eta Igor Galludok (Pedro Mari Otaño) laugarren postua lortu zuten. Hiru pultsulari hauek bihar Madrilan egingo den Espainako Eskola-Teknika Txapelketan parte hartuko dute.

Emakume nabarmenei buruz ikasleen erakusketa

ANOETA » Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Ikastolako LH eta DBHko ikasleek *Emakume nabarmenak historian zehar esparru desberdinetan erakusketa* landu dute. Ikusgai egongo da kiroldegian martxoaren 3tik 9ra.

V. Aiztondo Klasikoa, etzi, eskualdeko errepideetan

Txirindularitza »

Villabonan hasiko da 10:00etan eta Adunan bukatuko da 13:30ak aldera, 135 km. ondoren.

ERREDAKZIOA

Afizionatuen mailako V. Aiztondo Klasikoa ikusteko aukera izango dute txirindularitzazaleek etzi eskualdean. Aiztondo Klasika Batzordeak eta Aiztondo bailarako udaletxeak antolatuta, afizionatuetan ikusi daitekeen maila altueneko proba da Aiztondo Klasikoa. Izan ere, Espainiako Koparako baliozgarria da eta 28 taldek parte hartzen dute.

Proba 10:00etan hasiko da Villabonan eta Adunan amaituko da. Guztira 135 kilometro izango ditu eta 13:30ak inguruan amaitzea espero dute antolatzaileek. Ivilbi-deari dagokionez, Villabonatik



lazio podio: Oscar Puyol izan zen lehena, ondoren Zanbrano eta hirugarren Iker Aramendia izan zen. HITZA

abiatu ondoren, Ordiziraino joango dira, berriro Villabonara itzultzeko. Hortik, bost aldiz egingo dute ondorengo itzulia: Villabona-Asteasu-Zizurkil-Aduna-Villabona. Azken itzulieren ondoren Villabonatik Anoetara joan eta ondoren Alkizaraino igoko dira, Asteasuko errepidera jaisteko eta berriro Zizurkiletik pasa eta Adunan amaitzeko.

Mendiko sailkapenerako hirugarren mailako Adunako gaina (km. 54,8; 69,1; 83,4; 97,7 eta 112) eta bigarren mailako Alkizako gaina (km. 123,1) izango dira baliagarriak. Tarteko helmuga Villabonan dago eta sei aldiz pasako dira bertatik. Azkenik, Asteasun egingo da kokatuta esprint bereziko helmuga eta bost aldiz pasako dira bertatik.

Behar-Zanako bi taldeak lehian, Gipuzkoako Joko Garbiko Txapelketan

Amasa-Villabona » Lehia estua izango da, ligaxkan Behar-Zana 1ek 40-38 irabazi baitzion Behar-Zana 2ri.

ERREDAKZIOA

Behar-Zana elkarteko bi taldek jokatu dute bihar Gipuzkoako Ezker Paretoko Joko Garbi Txapelketaren finala. Behar-Zana 1 taldea Xabier Mitxelena eta Jon Alejok osatzen dute eta Behar-Zana 2 taldea Igor Alejok eta Sergio Sanchezek.

Finala Amasako pilotalekuan jokatu dute, 18:00etan. Lehia estua aurrekusten da, ligaxkako partidan Behar-Zana 1ek 40-38 irabazi baitzion Behar-Zana 2ri. Hain justu, ligaxkan bi taldeak gelditu ziren lehenengo bi postuetan. Guztira bost taldek hartu zuten parte, beste hiruk Zubietakoak.

Independentzia Eguna Villabonan, Ikaztegietan eta Lizartzan, etzi

Politika » Tolosan martxoaren 7an izango da Triangulotik hasita. Lau herrietan jai giroak izango du lekua.

ERREDAKZIOA

Ezker abertzaleak Independentziaren aldeko eguna antolatu du eskualdeko hainbat herritan. Etzi, esaterako, Amasa-Villabonan, Lizartzan eta Ikaztegietan izango dira.

Etzi hiru herri hauetan hainbat ekitaldi prestatu dituzte, ikurrinaren inguruan, eta Euskal Herriaren Independentzia oinarritzat hartuz. Herri kirolak, irakurketak, txapelketaren bat... Guztiak herrietako ezker abertzaleak antolatu.

Ikaztegietan Euskal Herriko herri kiroltako kirolari onenekoak ekarriko dituzte (eskualdekoak tartean ere badira). Bazkaria egingo dute Herrigintza elkartearen eta gaur da txartelak erosteko azken eguna 12 euroren truke, Toki Alai tabernan. Oilarra saltzan jate-

Gaztelun joan den larunbatean egin zuten independentziaren aldeko aldarrikapena

ko aukera izango da, besteen artean. Bazkariaren ondoren mus txapelketa antolatu dute.

Lizartzan ere etzi ekitaldiak izango dira baina goizean zehar. Goiztiarrenak beraiek izango dira, 10:00etan baitute deia. Txirrita elkartearen izango da bazkaria eta ondoren, bideo emanaldi bat. Tartean, plazan ikurrinari dantza egingo diote.

Gaztelun ere ospatu zuten

Joan den larunbatean Gaztelun ere Independentzia Eguna ospatu zuten. Gazteluko herritar talde bat iluntzean plazan bildu ziren independentzia aldarrikatzeko asmoz. Argazkia atera eta gero, afaria egin zuten elkartearen, «giro epelean» gainera. «Bildu zen jende guztiari eskertu» nahi izan diete antolatuzaileek, eta aldi berean, «animatu independentziaren bidean, borrokan jarrai dezaten».

Tolosan, gaur zortzi izango da Tolosan Independentziaren aldeko ekimena martxoaren 7an, ostirala, ospatuko dute. Hala eman zuten ezagutzera atzoko prentsaurrekoan. 19:00etan hasita To-

losako 7 kaletatik zehar kalejira egingo dute Triangulon hasita. Ibilaldia musikak girotuko du: dulzaina, trikitixa, txalaparta, txaranga, abestiak... «Independentziaren alde dagoen horri» gonbidatu nahi izan diete: *zazpi plaza, hamaika aldarrikapen*.

Ibilaldia, honako izango da: Triangulo, Plaza Zarra, Berdura Plaza, Gorriti Plaza, Plaza Berria,



Gaztelun Independentzia eguna joan den larunbatean ospatu zuten. Bukarera afaria egin zuten. HITZA



Triangulotik, Plaza Zarra aldera, Berdura Plaza, Gorriti Plaza, Plaza Berria, Euskal Herria Plaza parean, berriz, Trianguloa eta Zerkasira joango dira kaleetatik zehar.

Plaza bakoitzean, bertsolarien laguntzaz Euskal Herriak zenbait aldarrikapen irudikatuko dituzte: AHT gelditu, Etxebizitza eskubidea, Amnistia, hizkuntza eskubidea, Langile eskubideak eta emakumearen aukera berdintasuna, Euskal Selekzioa eta Lurraldetasuna, hain zuzen. Ibilaldia amaitutakoan «ekitaldi xume bat eskainiko diogu Euskal Herriari»: bertsolari, dantzari eta hizlariak lagundurik.

Bukatzeke, Zerkasian herri afaria izango dute. Txartelak Orbela, Raku eta Denak tabernetan eta Xirimiri kafetegian eskuragai daude 12 eurotan. Langabetuentza, berriz, prezioa baxuagoa izango da, hau da, 6 eurokoa.

Independentzia Egunean parte hartzerantz animatu zituzten ezker abertzalekoek, martxoaren zazpirako, hain zuzen ere.

Amasa-Villabonan ere abstentzioa eskatuko dute

Amasa-Villabonako ezker abertzaleak bihurtik aurrera herriko auzo guztiak zeharkatuko ditu martxoaren 9ko hauteskundeetan abstentzioaren aldarriarekin. Helburua «garbia da: Madril eta Parisi argi esatea ez dugula beste estatu erreforma-iruzurrik onartuko» eta «herri honek benetako aldaketak behar ditu, ez estatutu zaharren egokitze lausoak, gauzak bere horretan jarraitzeko».

Auzoetako ekimen honekin, abstentzioaren aldarria auzo guztiara eramango dute: bihar Amasa plazan 12:00etan izango da. Datozenak 19:00etan izango dira: astelehenean Arroa-Errota

flemingo plazan; asteartean Larrea plazoletan; asteazkenean Etxe Ondo parkean, Oriamendi iturri ondoan. Gaur zortzi, Txermin Antxin plazan, kale Berrian, Nagusian eta Berdura plazan.

Martxoak 9 present

Tolosan ere, hauteskundeak martxoaren 9an direla kontuan izanik, «abstentzioa eskatu zuten». Abstentzioaren bidez, «independentziaren helburua lortzeko urrats garrantzitsu bat ematera animatu nahi ditugu herritarrek. Hainbeste zapalkuntza, (...) eskubide urraketaren aurrean stopesan nahi dugulako».

Munduan «hainbat herri eskuratzeko ari diren moduan, Euskal Herriak ere independentzia eskuratzeko eskubidea duelako» antolaturiko ekimenetan parte hartzerako herritarrek animatu nahi izan zituzten.

» EGITARAUAK

AMASA-VILLABONA

■ **11:00.** Amasa-Villabonako udal hautetsiak independentziaren aldarria irakurriko dute Berdura plazan.

■ **Ondoren.** Kalejira trikitixaz alaituta izango da.

■ **13:00.** Ekitaldi politikoa Berdura plazan.

IKAZTEGIETA

■ **12:00.** Herri kirolak plazan. Trontzan 2 herritar eta bigarren mailako Euskal Herriko txapeldu-nordeak (Unai Iraola eta Jokin Garmendia) motozerrarekin. Koxkoletan, Eneko Garmendia (Baliarrain) Euskal Herriko txapeliduna bi herritarren aurka.

■ **Ondoren.** Ekitaldi plazan. Testua irakurri, herriko dantzari saio laburra, ikurrina plazan jarri.

■ **Bazkaldu aurretik.** Patxi Puntan (ur biltegiaren inguruan) Independentziaren kartela jartzera joango dira.

■ **Bazkaria.** Herrigintza elkartearen. Txartelak gaur arte salgai Toki Alai tabernan, 12 euroren truke.

■ **Bukatzeke.** Mus Txapelketa.

LIZARTZA

■ **10:00.** Goiz deia.

■ **12:00.** Ikurrinari dantza, bertsolariak eta hitzaldia.

■ **Ondoren.** Bazkaria herriko elkartearen eta bideo emanaldia.

TOLOSALDEA

Martxoak 7, ostirala

■ **19:00.** Kalejira, Triangulotik, zazpi geldidune eginez, musikaz lagunduta.

■ **Ondoren.** Ibilbide bat eginez, Tolosako plaza bakoitzean aldarrikapen bat egingo dute. Bukatutakoan omenaldi xumea Euskal Herriari.

■ **Bukatzeke.** Herri afaria Zerkasian izango da. Txartelak salgai Rakun, Orbela, Xirimiri eta Denak tabernetan daude, 12 euroren truke. Lanik ez dutenek 6 eurotan dituzte txartelak.

E **Elkarrizketa**

IZEBA PILARREN ILOBAK ▶ Musika taldea



ASIER IMAZ

«Azken kontzertuan 4 urteetako kanta guztiak joko ditugu»

Anoeta ▶ Izeba Pilarren Ilobak taldeak azken kontzertua eskainiko du bihar 23:00etatik aurrera Anoetako Gaztetxean.

ASIER IMAZ

IPI taldeko kideak: Adur Leunda (Hernalde, 1985), Iñigo Errazkin (Anoeta, 1982), Egoitz Iñurrita (Anoeta, 1982), Gorka Otxoa Aizpurua (Anoeta, 1980) eta Egoitz Luisa (Anoeta, 1983).

Nolako kontzertua izango da etziko?

E.L.: Asteko berezia izango da Iñigoren jotzen dugulako aspaldiko partez.

E.I.: Arratsaldean argazki emanaldi bat, bideo bat eta afaria ere egongo dira.

G.O.: Gero kontzertuan lau urteko abesti guztiak joko ditugu. Lau urteren errepasoa egingo dugu. Gero

kontzertuetan koroak egin dituen jendea, trikitilariak, gurekin noiz-bait jo duen jendea igoko da.

Herri giroko taldea zarete.

E.I.: Nik uste herri giroan mugitu den taldea izan dela IPI. Gaztetxearekin lotura eduki duen talde bat, herri mugimendurekin, bere letratan ere ikusten da; jai alternati-boekin ere lotura izan du etapa hori izan delako bizi duguna. Borrokarako tresna bat, herri mugimendurekin bat egin duena, gero jendeak ere horrela erantzun du kontzertuetara joanaz. Letrak gainera jende guztiak dakizki (Algarak).

Eta musikalki?

G.O.: Fenomeno batzuk. (Parreak).

E.L.: Jotzen hasi ginenean Iñigo Errazkinek bakarrik zekien jotzen gitarra. Berotuta hasi ginen, elkarri zuzer joko duzu galdezka. Hark batera esaten bazuen, niri gitarra jotzen zitzaidan.

G.O.: Beti esaten duguna, memento horretan zekien bakarra Iñigo Errazkin zen eta gu nahiko eskas ibiltzen ginen. Gero Iñigok uztea erabaki zuenean gitarra bat behar genuen, orduan entsegu bat grabatzea erabaki genuen eta Adurri eman genion zinta entzun zezan.

Oraindik ez dakigu baiezkoa nola eman zuten, entzutekoa baita zinta.

Eta zinta entzun zenuenean?

A.L.: Ezagutzen nituen eta... (algarak). Ia konpromiso bat zen. (Algarak). Kaseta entzun eta... ilusioarekin.

Nola hasi zen proiektua?

I.E.: Igande arratsaldeetako Hernaniko (Gipuzkoa) parranda batean.

G.O.: Kanta batean esplikatzeko dugu: *Parranda batian, zerbeza bat atera behar genuela otu zitzaigun...*

Behin sortu ondoren?

E.L.: Talde bezala hasi aurretik, Gazte Asanbladaren aurretik elkartu eta zerbait jotzen genuen.

I.E.: Lokalera etorri eta ateratzen zena jotzen genuen, batzutan 10 minutu lau akordeekin egoten ginen arren.

Lehen kontzertua.

G.O.: Hemen Gaztetxearen urtemugan joa genuen. Hasi eta bukatu beraz Gaztetxean eta txirrisklas batzuk ondoren.

I.E.: Nire lehenengo eta azkeneko kontzertua izan zen.

G.O.: Kontzertua piska bat kaotikoa izan zen. Beti ezagutzen gin-

tuen jendea agertu zen, hauek kontzertu bat jo behar al dute?

Maketa bat ere atera zenuen.

E.I.: Maketa bat eta bi bildumetan parte hartu dugu. Maketa Musik-Herria herri disketxearekin atera genuen orain dela pare bat urte. Gero MusikHerriak bi bilduma atera ditu eta horietan ere parte hartu dugu. Bat AHTren aurkakoa eta bestea euskal presoekin elkartasunean ateratakoa.

E.L.: Guri Lizartzako Haimar Altuna euskal presoak egin zizkigun letrak. Berarekin harremanetan jarri ginen eta horrela irten zen azken Durangoko Azokarako. Gainera oraindik ez dugu kontzertu batean ere jo kanta hori, bihar joko dugu lehen aldiz.

Zergatik amaiera?

G.O.: Azken aldera obligazio bezala ikusten genuen, entsegua egin behar genuen kontzertu bat zegoelako eta gauze edo ahal zenean egiten genuen entsegua. Gero bakoitzak lana eta bere gauzak ditu eta nahiko lanpetuta, ... Lau urte egin ditugu eta ez dago batere gaizki. Egia esan pena denak hartu genuen, nekatuta egon arren beti geratzen delako hori...

H **Hilberria**

JUAN JOSE IRASTORZA ARRATIBEL

-Goian bego-

Solas toki atsegina degu frontoi ertza 'Toki-Alai', gu sarritan hor izango gera 'Tio Juan Joxe' ere bai.

Etxeberriar senideak eta ilobak




ZALDIBIA
2008ko
otsailaren 29a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Arrospide leaburuarra eta Saralegi eta Olano leitzarrak, binakako finalean

Aizkora » Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako finalean parte hartuko dute, bihar, Azpeitian, 23:00etan.

NAIARA GARZIA

Bihar Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren finala jokatu dute Azpeitian, 23:00etatik aurrera. Aizkolariak 2 mailatan lehiatuko dira: gazteetan, eta urrezkoan, eta bai batean bai bestean, eskualdeko ordezkariak gogor saiaturiko dira. Gazteetan Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi leitzarrak Larretxea lehengusuen aurka ariko dira, eta urrezko kategorian, Arrospide leaburuarra eta Aierbe II.a ataundarra, Larretxea eta Atutxa II.aren aurka.

Bikote guztiak lan bera egin beharko dute, 24 enbor (2 bikoteraren artean) 5 ekinalditan moztu beharko dituzte.

Txapelketako ezustea

Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi eman dute aurtengo txapelketan ezustekoa, inork ez baitzuen uste finaleraino iritsiko zirenik.



Arrospide eta Aierbe II.a Larretxea eta Atutxa II.aren aurka lehiatuko dira urrezko kategorian. HITZA

«Ni aizkoran duela urte bat eta bi hilabete hasi nintzen. Lehengo urtean Nafarroako Hirugarren Mailako Txapelketan izena eman nuen, eta hor bigarren gelditu nintzen finalean eta orduan Nafarroako bigarren mailara pasa nintzen».

Olanok finalera iritsiko zirenik inork ez zuela espero azaldu du.

«Guk txapelketa honetan hasten ginela aurreneko urtea genuen, behin ere aritzekoak ginen, eta gure alde ez zuen inork egiten». Beraiek ere ez zutela espero gehitu du. «Aurrenekoa Larretxea lehengusuen aurka izan genuen eta parte hartzea ateraginen, eta gure lana egitea, baina aurrera segitzea lortu

genuen». Finalera iristeko hainbat saio egin behar izan dituzte. «Aurreneko 3 bikotez osatutako talde batean denak denak aurka aritu ginen eta lehenengo 2 bikoteak pasatu ginen, eta beste taldeetatik pasatu ziren 2 bikoteen artean finalaurrekoak jokatu genituen».

Finala «gogorra» izanen dela dio

Olanok. «Lehen ere Lekunberrin aritu ginen eta haiek irabazi ziguten. Guretzako lehenengo aldian zen, haiek orduz geroztik hobetu egin dute, guk ere pixka bat. Finala gogorra ikusten dut».

Ruben Saralegik, ere ez zutela finalera iristerik espero azaldu du. «Aurreneko saioan kanpoan geldituko ginela esaten zuten, eta honeiraino iritsi gara, guk ere uste ez genuen arren». Saralegi 2 urte zituela hasi zen etxean aizkorarekin, «aita eta aizkolariak bainituen». Lehengo aldiz erakustaldia plazan 6 urterekin egin zuen, eta txapelketetako «serio» entrenatzen duela 6 hilabete hasi zen. «Oraindik ez naiz atera ezta txapelketa batetara, baina hirugarren mailan nago». Saralegik finala «oso zaila» ikusten duela azaldu du. «Haiek dira faboritoak, baina gu saiatu eginen gara».

Anjel Arrospide

Urrezko Mailan beteranoren artean egonen da lehia, Arrospide eta Aierbe II.a, Larretxea eta Atutxa II.aren aurka ariko baitira. Anjel Arrospidek finala «zaila» ikusten duela dio. «Aurkariak gogorrak dira, baina gu ere nahiko gustura gaude. Ea zer gertatzen den».

Bere adinean txapel bat irabaztea «ilusio handia» dela dio leaburuarrak. «Irabazteak poza irabazteak emango lidake, baina puntan betiko jendea ibiltzea, hori da tristen».

'Deseo, peligro' film taiwandarra gaur eta etzi zineman ikusgai, ohiko orduan

Leitza » Hau da Ang Lee zuzendariaren azken lana eta berari esker Veneziako Urrezko Lehoia irabazi zuen.

N. GARZIA

Deseo, peligro, hau da jaiotzez taiwandarra den Ang Lee zuzendariaren azken lana. Espioitza, maitasuna, sexua eta indarkeria uztartzen dituen film honi esker, Veneziako Urrezko Lehoia saria irabazi du.

Filma 40. hamarkadako Shangaien kokatutako dago. Japoniarrek beraien gustuko gobernu bat jartzen dute Txinan, eta hainbat taldek gobernu honen aurka lan egiten dute, klandestinitatean. Baina egoera honetatik haratago, emakume eta gizon baten arteko istorioa da *Deseo, Peligro*, aktorea baten (Tang Wei) eta polizia baten (Tony Leung) artekoa.

Lee genero ezberdinak jorratzen ohiuta dago eta berak zuzendutakoak dira, besteak beste, *Sentido y sensibilidad*, *Hulk*, *Tigre y Dragón* eta *Brokeback Mountain*.

Larrea elkarteko atea erre dute

Leitza » Herenegun gauean gertatu zen, inork ez zuen kalterik sufritu, baina sarrerako atearen zati bat erre egin zen.

ERREDAKZIOA

Herenegun gauean Guardia Zibila lagun bat atxilotu zuen Leitzaan saietez Larrea elkarteari su ematen saiatzeagatik.

Poliziaren arabera, «herenegun, 22:00etan, likido sukoiia jaurti zuen San Migel auzoan dagoen Larrea elkartearen aurka. Une horretan lagun talde bat soziedadear-

ren barruan zegoen, afaltzen, baina inork ez zuen inolako kalterik sufritu». Sutearen ondorioz, sarrerako atea eta alfonbrak kalteak izan dituzte. Pertsona hauek lokalitik atera zirenean ustezko erasotzailea ikusi zuten eta Guardia Zibila bertaratu eta atxilotu egin zuten.

Atxilo hartu zuten lagunak giro abertzalearekin zerikusirik ez duela azaldu du poliziak. «Osasun arazoak eta arazo sozialak» dituela diote, eta desordena publikoa egitea leporatu diote.

Senitartekoez azaldu dutenez, «ekintza honek ez du politikarekin inolako zerikusirik».



Atearen zati bat erre zen arren, inork ez zuen kalte pertsonalik sufritu. N. GARZIA

DONOSTIALDEKO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU (Erref. Bt 08_1)

Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna duen pertsona baten bila gabilta. Esperientzia izatea ez da beharrezkoa, baina kontuan hartuko da antzeko lanetan eskarmentua izatea. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea eta gidabaimena eta autoa izatea.

Aukeratutako pertsonaren egitekoa hainbat produktu saltzea izango da, eta etorkizun interesgarria duen proiektu berri batean parte hartzeko aukera eskainiko zaio.

Lan baldintzei dagokionez, lan kontratua eskaintzen da, gizarte segurantzarekin, eta, soldata finko interesgarriaz gain, salmenten arabera komisioak ere izango ditu.

Curriculum Vitae zehatza bidali martxoaren 10erako gizabaliabideak@jarduna.net HELBIDE ELEKTRONIKORA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.

DISEINATZAILEA

Donostia aldeko publizitate eta marketin enpresa batek diseinatzaile bat behar du.

Erreferentzia: 2008 IR-DP

Eskatzen da:

- Diseinuan esperientzia izatea.
- Diseinu programak menperatzea (Freehand, Photoshop, Quark...).
- Publizitate produktuen ekoizpenean esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da:

- Urte bateko kontratua (luzatzeko aukera).
- Egun erdiko kontratua (goizez edo arratsaldean aukeratu).
- Lanean berehala hastea.

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, martxoaren 9a baino lehen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Anoeta.** *Greban gaude* antzerki saioa udal batzar aretoan 22:00etan. Hiru emakumek beraien komeriak kontatuko dituzte eta ikus-entzuleek barre egiteko aukera izango dute.
■ **Villabona.** *Cincuentones* antzez-lana Gurea aretoan Julio Perugorria antzerki taldearen eskutik. Txartelak 8 euro balioko dute eta Gazte Txartelarekin 6.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** *Negoziazio prozesua eta ezker abertzalearen proposamen politikoa: etorkizunerako gakoak* hitzaldia Leidor aretoan 20.00etatik aurrera.

Zinema

■ **Tolosa.** Judd Apatow zuzendariaren *Lio* embarazoso filma eman-go dute Leidor aretoan, 22:30etik aurrera.
■ **Leitza.** Ang Lee zuzendari taiwandarraren *Deseo, peligro* filma emango dute gaur 22:30ean eta etzi, igandean, 19:30ean.

Deialdiak

■ **Alkiza.** Emakumearen Nazioarteko Egunean Ostatuan afaria antolatuko dute, 21:00etan. Izen-ematea, Aiztondoko bulegoetan egin daiteke.
■ **Anoeta.** Bihar, 17:00etan argazki emanaldia eta ondoren poteoa eta afari herrikoa. 23:00etan, Izeba Pilarren Ilobak taldearen azken kontzertuan, Anoetako Gaztetxean.
■ **Tolosa.** Martxoan izango den



Ernioko martxarako izen-ematea

TOLOSALDEA ● Maiatzaren 11n Ernio inguratzen duten herriak lotzen dituen martxa egingo dute. Aurten Alkiza izango du abiapuntua, baita helmuga ere. Izena emateko epea jada, zabalik dago, Alkizako udaletxean. Egin daiteke bai posta elektronikoen bidez (*alki-*

za@udal.gipuzkoa.net), bai telefonoz deituta (943690235), baita bertara azalduta ere, bulegoko orduetan. Izena ematerakoan 3 euro ordaindu beharok dira. Ibilbideak 48 kilometro inguru ditu, eta 11 ordutan, gehienez, egin beharrekoa da. HITZA

Zine festarako abono salmenta Leidor aretoan ostegunean eta ostiralean 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

■ **Tolosaldea.** Eskiak Euskal Herrian 100 urte bete dituela eta atzoko eta gaurko eskiatzaileen afaria egingo da martxoaren 2an Lekunberriko Aiestaran hotelean. Izen-ematea, 670 029898 (Ane) eta 943 288652 (Alberto) telefonoetan.

■ **Zizurkil.** Gutun Lehiaketa naturari buruz 6 urtetik aurrera. Bi lan aurkez daitezke, gehienez bi orrikoak izango direnak. Gutunak Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora eraman behar dira, Zizurkilgo Muñoa kaleko 36 zenbakian.

Kirolak

■ **Tolosa.** Javier Urkolaren ome-nezko VII. Herri Duatloia izango da martxoaren 8an, 16:00etan hasita: 2 km korrika, 15 km bizikletaz eta 2 km korrika. Izen-ematea, udaletxea, Karlis, Shanti Kirolak eta Zut-en.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañagaren artista tolosarraren marrazki eta margolanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian, ohiko ordutegian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esan eta iritzien erantzunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Zuretzako etxea dugu Estellerrian

Lizarrak: Duplexa

- Lizarrako zonakide onenean
- Zabalak eta eremu bastea
- 90m²-ko duplexa
- Aitzari eta etxebizitea elektrikoak hornitutako sukaldia

Lizarrak: Familia bakarreko etxeak

- 70m²-ko partela + 119m²-ko etxebizitea
- 4 logela + 2 bainugela eta komunak
- 28m²-ko egongela
- Aitzari eta etxebizitea elektrikoak hornitutako sukaldia

Amillao: Urbanizatutako partzelak

- 350m²-ko urbanizatutako partzelak, hegokiderantz orientatuak
- Lokiz mendiarren eta Urbasko Parke Naturalaren inguruan

Villatuerta: Urbanizazio eskusiboa

- Urbasa eta Andako Parke Naturalaren ondoan
- Urbanizazio berezia
- Binakako etxeak eta eraikin atxikak, 175m² erabilgaitasun artekoak
- 300m² arteko partzelak

Tolosa
Lizarrak
Bazarralego kalea, 1, 48100 Leiza
Tel: 943 65 11 22 - Muga: 679 94 27 66

Aida Vivendas
www.aidavivendas.com

Iruña
Gorri kalea, 30, behea
Tel: 948 29 14 13

Lizarrak
Wanako Printzaren kalea, 11, behea
Tel: 948 02 50 94

Etxebizitza



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



PREZIOAK GELDIRIK BAINA ORAINDIK ERE OSO ALTU

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Eskualdean badituzte hainbat proiektu udalek; eraikuntza alorreko adituek diotenaren arabera azkenaldian prezioak gelditu egin dira baina geldiunea kasuala izan daiteke eta prezioek altu jarraituko dute

E Elkarrizketa

MILA BARRENETXEA ▶ Aranburu higiezin agentziaren arduraduna

Tolosa » Eskualdeko egoeraren azterketa egin du Tolosako higiezin agentzia baten arduraduna den Mila Barrenetxea; «prezioak oso altuak» direla uste du.

Mila Barrenetxeak Aranburu higiezin agentzian egiten du lan. «Igoera gelditu den arren, unean uneko gauza bat baino» izan daitekeela uste du Barrenetxeak. Beraiena «bitartekaritza» lana dela azaldu da, eroslearen eta saltzailearen artekoa, hain zuzen ere.

Zein da inbiliararen lana?

Inbiliararen lana berez bitartekaritza lan bat da. Gure kasuan, Aranburun aktibitate nagusia, finka administrazioa da, jabetza horizontaleko komunitateen administrazio eta gestio integrala, baina hau oinarri hartuz, bitartekaritza zerbitzua ere eskeintzen dugu. Honela, saldu edota alokatu nahi duena, eta erosi edota alokairuan hartu nahi duenaren arteko bitartekaritza egiten dugu. Baina bitartekaritza honek, asesoritza bat dakar berarekin, hau da, egin beharreko tramiteak, finantziaketak, balorazioen berri ematen diogu bezeroari.

Zer eskaintzen diozue bezeroari?

Bezeroa, alde batetik bere ondasuna saldu edota alokairuan jartzeko gogoz etortzen da, eta bestaldetik etxebizitza, lokal, garaje... bat erosi edota alokairuan hartzeko amoz, eta guk, bataz jarrirako prezio eta



HITZA

«Prezio igoera gelditu arren, etxebizitza oso garestia da eskualdean»

tio bat izan daiteke soilik. Egia dena da, eraikuntzan ibili dituzten margenak asko murriztu direla eta etorkizunean eraikitzea ez dela iraganean izan denaren parekoa izango.

Ze bezero mota zuzentzen da zueganara?

Gure bezeroa orokorrean, aspaldidanik ezagutzen dugun bezeroa da. Normalean, bere etxea administrazioan dugu, eta horrek elkarrekin ezagutza ekartzen du. Bai gure berarekin kofidantza eta berak gurekin kofidantza, ezagutzen gaituelako. Bertan, gazteak, jubilatuak... aurkitzen ditugularik.

Nola konbenitzen bezeroa inbiliaria batera jotzeko?

Aranburura, gardentasuna eta kofidantza ekartzen du bezeroa, eta honi gehitu behar diogu, urteetan egindako lana, urteek ematen duten bermearekin. Gure aktibitate nagusiak, Finka Administrazioak, bitartekaritza lana garrantzitzen du eta honela gure bezeroei zerbitzu gehigarri bat eskeintzen diegu.

Alokairuan daudenentzat laguntzak ematen hasi dira. Nabaritu al da hori alokairuen prezioetan?

Gurean, ez da nabaritu laguntza horiek eman izana. Posible da, laguntza horiek txikiak direlako izatea.

Salmentak zer moduzkoak izan dira 2007an?

Gure salmentak mantendu egin dira aurreko urtearekin konparatuta baina, hurrengo urteetan ikusi egin beharko da zer gertatzen den merkatuan.

baldintzen berri ematen diogu besteari, eta ahal den heinean bien arteko akordio bat lortu.

Inbiliaria batzuk ixten joan dira azkenaldian. Zein da arrazoia?

Arrazoi zehatzak alde batera utzitako, orokorki salmenta asko jaitsi da eta horrek eragina izan du bai merkatuan bai bitartekaritza.

Nola dago etxebizitzaren egoera Tolosaldean?

Etxebizitzaren egoera Tolosaldean, pixkanaka bada ere aldatzen ari dela dirudi, prezioa igotzeaz gelditu egin baitira. Hala ere, oinarriko arazoak bertan dirau, etxebizitza oso garestia da. Nahiz eta prezio igoera gelditu, oso garestiak izaten jarraitzen dute.

Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzak martxan daude. Eragina jaso al duzue?

Noski jaso dugula, Tolosan nabaritu da bereziki, eskeintza handia dago bertan eta honek beti mugitzen du alde batera edota bestera merkatua.

Batzuk diote etxebizitza sektoreak bereak egin duela. Zer deritzozu?

Igoera gelditu egin dela garbi dago, baina tamalez, momentuko kues-

ARIZMENDI
ERAIKUNTZAK ETA IGELTSERITZA
Jose Angel Otaegi Otaegi
Tel.: 696 972 120 • 943 691 533 • ZIZURKIL

ARKITALDE S.L. Jon Arregi Uranga (arkitektoa)

- Eraikuntza proiektuen gestio osoa
- Proiektu urbanistikoak
- Hirigintzako eta higiezin gestioa

info@arkitalde.com
Tel.: 943 675555

Eskualdeko eraikuntza alorreko arduradun batek etxebizitza eraiki bitarteko prozesua azaldu du; «lan handia dago atzetik, bost urte inguru igaro daitezke etxebizitza bukatzen den arte».

Eraikuntzaren atzean...

Behin amaituta erraza dirudi etxebizitza bat altxatzea, baina lan luzea eta nekeza dago eraikuntzaren sektorearen atzetik. Lehenik eta behin etxegileak lur eremua lortu behar du, ondoren hau kalifikatu eta eraikitzea izango da hurrengo urratsa. Bost urte inguru irauten du prozesuak. Pedro Aburuza etxegileak azaldu bezala, «kasu guztiak desberdinak dira, batzuetan lur eremuak industrialak dira, urbanoak besteetan edota nekazal eremuak».

Arkitektoen eta abokatuen lana ere ezinbestekoa izaten da, «haiek aztertzen baitituzte lur eremua eraikitzeko baliagarria izateko aukera guztiak». Hala ere, gerta daiteke, prozesu hau dagoeneko egin egotea.

Aldaketa ugari, urteak aurrera egin ahala

Ondo ezagutzen du sektorea Pedro Aburuza bidaniarrak, izan ere, «txiki-txikitatik bizi izan dut alor hau eta promozioekin duela 20 urte inguru hasi nintzen». Hain zuzen ere, hogeituzte hauetako «aldaketa handiak» izan direla aipatu du. Gaur egun gauzak «txukunago» egiten direla azaldu du: «Garai batean, lur eremua erosi eta zuzenean eraiki egiten zen; gaur egun, berriaz, sarbideak, saneamentuak, ... aztertu egin behar dira eraikitzen hasi aurretik».

Hala ere, aldaketa hauek gauzak «ez dituztela errazten» uste du Aburuzak. «Terrenoa erosi eta eraikigarri izendatu arte denbora

luzea igaro daiteke eta bitarte horretan zuk egin duzun inbertsioa geldirik dago».

Bezero mota ugari

Beasain eta Donostia bitartean eraikitzen du Aburuzak, etxebizitza tasatuak, babes ofizialekoak nahiz libreak. Bezeroa pozik gertatzeko gakoa «etxebizitza txukunak eta prezio konpetitiboekin» egitean dagoela dio Bidaniakoak. «Guk guztia gure jendearekin egiten dugu eta hori oso garrantzitsua da; gainera urteetako esperientzia dugu».

Bezero mota ugari gerturatzen dira euren zerbitzuak eskatzeko, eskaintza motaren arabera izateko.

Jendea «exijentea» da oro har eta prezioari asko begiratzen dio etxea erosterakoan

Lurraren garestitzeak ekarri du etxebizitzaren prezioen igoera, baita materialen igoerak ere

ten da. «Ez dago prototipo edo eredu mota bat, bikoteak, banaka, heldu zein gazte hurbiltzen dira guregana». Hori bai, oro har, bezeroa «exijentea» da, eta «etxebizitzaren prezioari» begiratzen dio batik bat. «Askotan etxebizitza euren erara moldatzea nahi izaten du bezeroak baina hori ezinezkoa da», dio. Hala, haiek proiektua egiten dute eta bere horretan onartu behar du



Aburuza eraikuntzak enpresak Villabonan eraikitzen ari da etxebizitza bloke berri bat. I.T.

bezeroak; «aldaketak behin giltzak entregatzen direnean egin daitezke».

Zergatik egin du gora etxebizitzaren prezioak?

Guztitan ahotan dago azken urteetan etxebizitzaren prezioa. Eten-gabe igotzen joan da urtetik urtera, baina badirudi etenalditxo bat ere izan duela sektoreak. «Orain, urte pare bat-edo geldituta egongo da baina gero ere gora egingen jarraituko

du», aurreikusi du Aburuzak. Igoeraren arrazoiak aztertzerakoan, «eskaera handia» dela eta lurra garestitu egin» dela argudiatu du. «Lur eremuen igoera hain handia izan da azken urteetan non lehen etxebizitza guztiak balio zuena orain lurrik bakarrik balio duen», gaineratu du.

Etxebizitzaren eraikuntzarako erabiltzen diren materialen prezioak ere gora egin duela azaldu du Aburuzak. «Kalitatea ere igo egin

da» eta beste berrikuntza batzuk ere barneratu dituzte, telekomunikazioak edota plaka solarrak, esaterako.

Geldiune hau «ekonomiaren zirkloa» dela dio Aburuzak: «80. eta 90. hamarkadetan ere izan ziren geldituak; orain bankuek ez dituzte kredituak hain erraz ematen interesak oso altu daudelako. Baina interesek ere behera egingo dute eta goerak emango du buelta».

Beti eztabaidagai

Gizartea » Etxebizitzaren egungo egoeran elkarriketa gehienetan eztabaidatzen den gaia da, batik bat, gazteen artean.

Zabal eta luze eztabaida daitezke etxebizitzaren inguruan, hain zuzen ere, gazteek egun duten arazo larrienetakoaren inguruan. Askok eta askok ezin dute gurasoen itzaltetik atera, etxebizitzaren prezioa altuegia delako eta ondorioz, hipotekari ezin diote lako aurre egin. Baina, zein da etxebizitzaren egoerari aurre egiteko irtenbidea?

Askotariko jarrerak piztu ditu egoerak, etxebizitza duinaren aldeko taldeen sorrerak, esaterako. Pedro Aburuzak ere honen inguruko iritzia zehaztu du. «Une honetan etxebizitza bat erosteko aukerarik ez duten gazteentzat irtenbide egokiena alokairua da, babes ofizialeko etxebizitzak baino, izan ere, azken hauek mugatu egiten dute».

Iritziak iritzi, gero eta zailagoa da gazte batentzat etxebizitza batean sartu ahal izatea. Datuen arabera, azken urtean etxebizitza libreen salmenta jaitsi egin da eta bigarren eskuko etxebizitzaren jabeek euren salmenta prezioa jaistera

behartuta ikusi dute euren burua, salmentaren geldialdia dela eta.

Ba al du amaierarik etxebizitzaren igoera nabarmen honek? Egun

gazteek dituzten soldatekin posible al da hipoteka bati aurre egitea? Zein da irtenbidea gazteentzat? Nahikoa lan egiten al dute erakunde eta instituzioek arazoari irten-

bidea emateko? Hamaika galdera daude, egungo egoerak bere horretan mantentzen bada, etxebizitza eztabaidagai izaten jarraituko baitu.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.



Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

Ze proiektu ditugu eskualdean etxebizitzaren alorrean? Gure inguruan eraikiko al dituzte babes ofizialeko etxebizitzak edota etxebizitza tasatuak? Noiz eta zenbat eraikiko dituzte? Tolosaldeko herri handienetan, Alegian, Tolosan eta Villabonan, onartuak dituzten hirigintza proiektuetan askotariko aukerak aurki ditzakegu: babes ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza tasatuak eta babes ofizialeko alokairuko etxebizitzak.

Gipuzkoan estreinakoz

Alegian, esaterako, Gipuzkoan aitzindari den ekimena abiaraziko dute, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak. Denera, 18 egingo dituzte Beistinen, 35 urteik beherakoei eta soldata baxua dutenei zuzenduak. 50-60 m²-koak izango dira, eta 2010ean bukatzea proiektua espero dute. Horretaz gain, oraindik aztertzen ari diren proiektua ere badute, 174 etxebizitzekin, eta erdiak babestuak.

Bestalde, Tolosan dena 2.973 etxebizitza aurreikusten dira 2015 urterako Hiri Urbanizaziorako Plan Orokorrean. Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzek pisu handia dute bertan, eta horiekin batera, San Esteban auzorako dagoen proiektuak. Bertan, 1.066 etxebizitza egin nahi dituzte, eta horietatik 307 izango lirake babestuak, 401 tasatuak eta 358 libreak.

Villabonan, berriz, bi proiektu ari dira garatzen une honetan. Bata, Fleming eskola zaharra zegoen lekuan, Villabona Lantzenen ekimenez, eta babes ofizialeko 20 eta tasaturiko 10 etxebizitza egingo dituzte. Bestea, Salbadora paper-fabrika zegoen lekuan; bertan 155 etxebizitza eraikiko dituzte, horietatik 50 babes ofizialekoak.

Plan orokorraren zain

Eskualdeko beste herri handiak Leizta eta Ibarra dira. Hauetan oraindik zehaztu gabe dute datozen urteetarako hirigintza proiektua. Leiztan, esaterako, ikerketa soziologiko bat egin dute herritarren artean hauen beharrak ikusteko helburuz, eta une honetan txostena amaitzen ari dira, eta ondoren proposamena luzatuko luke Udalak txostena kontuan hartuta.

Ibarran, berriz, Chelo Romeo alkateak adierazitakoaren arabera, «Hiri Ordenaziorako Plan Orokorra egitearen zain daude».

Babes ofizialekoak, tasatuak eta libreak, salgai nahiz alokairuan



Voith-Gorostidi eremuko proiektuaren ostean, San Esteban auzoan egingo dutena litzateke datozen urteetan aurreikusten den handiena. I.T.

» DATOZEN URTEETAN ESKUALDEKO HERRI HANDIENETAN EGINGO DITUZTEN ETXEBIZITZAK

Alegia Beistin.

- Alokairuko babes ofizialeko 18 etxebizitza egingo dituzte.
- 174 etxebizitza: erdiak babes ofizialekoak.

Tolosa

- **2.973 etxebizitza.** Datozen 8 urteetarako, hau da, 2015erako etxebizitza kopuru hori zehazten da Hiri Urbanizaziorako Plan Orokorrean. Horietatik 659 izango dira babes ofizialekoak (%22), 959 tasatuak (%32) eta 1.355 libreak (%46).

Arramele-Arkaute.

- Voith Gorostidi: 675 etxebizitza: 135 babes ofizialekoak, 290 tasatuak eta 250 libreak.
- Miserikordia zaharra: 87 etxebizitza: 16 babes ofizialekoak,

23 tasatuak eta 48 libreak izango lirake.

Santa Klara.

- San Cosme - San Damian: 48 etxebizitza: 20 tasatuak eta 28 libreak.
- Ibaralde kaleko 1,3 eta 5: 52 etxebizitza: 8 babes ofizialekoak, 14 tasatuak eta 30 libreak.

Alde Zaharra.

- Ezkerraldeko gunea: 50 etxebizitza libre.

Gorosabel.

- Korazonistak: 26 etxebizitza libre.
- Rondilla kaleko luzapena: 40 etxebizitza libre.
- **San Esteban.** 1.066 etxebizitza: 307 babes ofizialekoak, 401 tasatuak eta 358 libreak.
- **San Frantzisko kalea.** 40 etxebizitza libre.

- **Laskorain.** 22 etxebizitza: 10 etxebizitza tasatu eta 12 libre.

Berazubi.

- Kondeaneko Aldapa 8-10: 34 etxebizitza: 9 tasatu eta 25 libre.
- Kondeaneko Aldapa 30: 20 etxebizitza libre.
- Berazubi ikastetxea: 20 etxebizitza tasatu.
- Elkano kalea: 20 etxebizitza libre.

Bidebideta-Izaskun-Iparragirre-Kondeaneko Aldapa.

- Igarondo: 118 etxebizitza libre.
- Zubizarreta: 48 etxebizitza: 15 babes ofizialekoak, 16 tasatuak eta 17 libreak.
- Kondeaneko Aldapa 11: 32 etxebizitza: 10 babes ofizialekoak, 10 tasatuak eta 12 libreak.
- **San Blas.** 234 etxebizitza: 46 babes ofizialekoak, 68 tasatuak eta 120 libreak.

- **lurre.** 120 etxebizitza: 20 babes ofizialekoak, 29 tasatuak eta 71 libreak.

- **Olarrain.** 181 etxebizitza: 91 babes ofizialekoak, 38 tasatuak eta 52 libreak.

- **Urkizu.** 16 etxebizitza: 5 babes ofizialekoak, 5 tasatuak eta 6 libreak.

- **Bedaio.** 24 etxebizitza: 6 babes ofizialekoak, 6 tasatuak eta 12 libreak.

Villabona

■ Tasatuak eta babestuak.

Fleming eskola zaharra zegoen zonaldean, babes ofizialeko 20 etxebizitza eta tasaturiko 10 ari dira eraikitzen.

- **Babestuak.** Salbadora paper-fabrikari, 155 etxebizitza: 50 babes ofizialekoak eta 105 libreak.



ESKABAZIOAK
URBANIZAZIOAK
MENDI ETA HERRI BIDEAK
PABILIOIEN ERAIKUNTZA
ETXEBIZITZAK
ETXEBIZITZEN ZAHAR-BERRITZE LANAK

EXCAVACIONES Y CONSTRUCCIONES GORRITZ S.L. INURRISTA INDUSTRIAGUNEA, P-21 LEITZA 31880
TFA: 948 510 140 | FAXA: 948 510 996